

Año LII. urtea

129 - 2020

Urtarrila-ekaina

Enero-junio



FONTES LINGVÆ VASCONVM STVDIA ET DOCUMENTA

SEPARATA

Gulibarko aldaeraren inguruan

(1 -Gulibar bereko azpialdaera)

Koldo ARTOLA

Gulibarko aldaeraren inguruan

(1 -Gulibar bereko azpialdaera)

Acerca de la variedad de Gulina (1 -Subvariedad propia)

About the Gulina variety (1 – Independent sub-variety)

Koldo ARTOLA

Donostiako Aranzadi Zientzi Elkarteko Etnografi Sailekoa

kmartola@gmail.com

DOI: <https://doi.org/10.35462/FLV129.2>

Esker biziak damazkiot lana irakurri eta zenbait iradokizun egin didan Xabier semeari, Euskal Filologian lizentziaduna denari.

Jasotze data: 2019/09/09. Behin-behineko onartze data: 2020/02/24. Behin betiko onartze data: 2020/03/02.

LABURPENA

Louis-Lucien Bonaparte printzeak, euskara sailkatzeko bere ahaleaginean, nafar Pirinioko bere talaiatik so eginez nonbait, Iruñez haraindiko multzo handi bati ‘aldaera’ gisako kategoria iritzi eta *subdialecto ultra-pamplonés* gisako deitura eman zion, honen barruan Guliko hau, Oltzako eta Zizurko aldaerak kokatuz, hau guztia, jakina denez, *Hegoaldeko goi-nafarrera* ere deitu zuen euskalkiaren barruan. Lan honetara, azpitu-luan aipatzen denez, aldaerari dagokion izen bereko azpialdaerarekin zerikusia izanik, duela hogeita hamar urte inguru bildu genituen testu batzuk ekarri ditugu.

Gako hitzak: hego-nafarrera; Gulibarko aldaera (Gulibar bereko herriak); euskara; dialektologia.

RESUMEN

Cuando el vascófilo Louis-Lucien Bonaparte estableció su clasificación de las hablas vascas, allí, en algún lugar del Pirineo navarro, designó al conjunto de variedades de más allá de Pamplona como *subdialecto ultra-pamplonés*, formado por las variedades de *Cizur*, *Olza* y esta de *Gulina*. Todo ello, como se ha recordado reiteradas veces, dentro del dialecto *alto navarro meridional*. A esta entrega, tal como se indica en el subtítulo de la misma, aportamos textos recogidos en el mismo valle que da nombre a la subvariedad.

Palabras clave: euskera navarro meridional; variedad de *Gulina* (pueblos del propio valle); dialectología vasca.

ABSTRACT

When the Basquephile Louis-Lucien Bonaparte made his classification of the Basque language, there, somewhere in the Navarrese Pyrenees, he designated the set of varieties beyond Pamplona as the *ultra-pamplonés* subdialect, covering the *Cizur* and *Olza* varieties, and this one from *Gulina*, all, as repeatedly pointed out, within the *southern upper Navarrese* dialect. As indicated in the subtitle, this paper offers texts collected from the valley which lends its name to this sub-variety.

Keywords: Southern Navarrese Basque; *Gulina* variety (villages in the valley); Basque dialectology.

1. SARRERA LABURRA. 2. DATUEN TRANSKRIPZIORAKO OHARRAK. 3. ALDAERA HONEN EZAUGARRI BATZUK. 4. SAIO HONETAKO BERRIEMAILEEN ZERRENDA. 5. GULIA. 5.1. Angeles Jaunsarats Larraiotz. 6. LARUNBE. 6.1. Gregoria Baraibar Erbiti. 7. LARUNBE. 7.1. Isabel Erize Egozkuezabal. 8. ZIA. 8.1. Hipolito Goñi (H) eta Maria Etxeberria (M). 9. AGINAGA. 9.1. Manuel eta Juan Larunbe Aizkorbe. 10. ERREFERENTZIAK.

1. SARRERA LABURRA

Behin Louis-Lucien Bonapartek *cispamplonés* deitu zuen esparruaren luze-zabalean aspaldi eskuratu genituen datuak Aldizkari honen orriotara ekarri ondoren, aldi honetan, hark berak, *ultrapamplonés* azpieuskalkiaren barruan, *Variedad de Gulina* izenez sailkatu zuen aldaerari eusteko beharra ikusi dugu eta, hortaz, aldaera honetxek barne hartzen dituen Gulibarko eta Txulapaingo ibarretan inoiz grabatzera iritsi ginen materialen berri ematen saiatuko gara.

Hori horrela, orain arte erabili dugun ekialdetik mendebalderanzko norabidea aldatu behar izan dugu, zeren, printzeak, aldaera honi *Gulina* izena emanik, logikoagoa iruditzen baitzaigu, honen inguruan ezer idazten hastean, ibar honetatik abiatzea Txulapaingotik baino.

Ditugun ekaiek hiru saiotarako ematen dutela uste dugu. Lehenengoak, goian ageri bezala, Gulibarren du habia; eta, beste biek, berriz, Txulapainen, nahiz ibar batean zein bestean eskuratu genuen informazioa herri gutxi batzuetara zabaltzen den: Gulibarko Larunbe eta Ziara, alde batetik; eta, Txulapaingo Beorburu, Otsakar eta Usira, bestetik, beste zenbait herritan bildu genituen datu batzuek osatuta, ohiki funts gutxikoak edo apurrak besterik ez direnak, askotan gaztelaniazkoak edota, kasurik onenean, euskara pixka batekin nahasiak.

Pedro de Yrizarrek, 1992an argitaratu *Morfología del verbo auxiliar alto navarro meridional* lanean, aldaera hau bi azpialderatan banatu zuen: bata, *Propia* deitu zuena; eta, bestea, *Juslapeña*. Urrats interesgarri hori emateko hautua honela adierazi zuen:

Aunque la conjugación es bastante uniforme en toda la variedad, hemos establecido dos subvariedades: la propia, correspondiente al valle de Gulina, y la de Juslapeña, utilizada en el valle de este nombre. Las diferencias se refieren fundamentalmente a las flexiones en que interviene la segunda persona del plural y las que incorporan la primera persona del singular como objeto indirecto (Yrizar, 1992, 631. or.).

Laburki esanda eta erraz ikusteko moduan: Larunben eta Zian, ‘nor-nori’ saileko ‘zuei’ kasuan, *zaizte / zaikizte* dugu orainaldian, eta *zaizkiten / zaizkizten* iraganaldian; ‘nor-nork’ saileko ‘zuek’ kasuan, orainaldian eta singularrean, *duzte* bildu da –Larunben *duze* eta are, lehen silaba galdurik, *zute / zue* ere bai– eta pluralean *ttuzte*. Eta ‘nor-nori-nork’ saileko ‘zuei’ kasuan, *diztet / ttiztet* orainaldian, eta *nizten / nizien* iraganaldian.

Jokamolde horrek Arakil aldera jotzen du nabarmenki, Urritzolatik Irañetara bitarteko herrietan era horretako adizkiak bilduak izan baitira.

2. DATUEN TRANSKRIPZIORAKO OHARRAK

Bokal batzuen itxierak: *a* eta *e* artekoa *ä* idatzi dugu; *e* eta *i* artekoa *ë*; *o* eta *u* artekoa, *ö*. Inoiz, *i* eta *u* arteko bat aditu uste izan dugunean, *ü* idatzi dugu.

Azken horrek bitxi samarra iduri badezake ere, oroitarazi nahi dugu Bonaparteren eskuizkribuetan hitzek artikulua hartzean zer-nola jokatzaren zuten adierazteko hark berak idatzirik orrian¹ zera irakur daitekeela: «Uriz: á, eá, ía, oá, úa», azken horren kasuan, *u*-aren gainean eta tildearen azpian, puntutxo bat ageri dela.

Soinu hori, Artzibarko eta Erroibarko aldaeretatik Olaibarkora igarotzean desagertuz doa, Gaskuen bi aldez eta Gelbentzun eta Ziaurritzen bana baizik ez baitugu antze-man, baina hortik mendebaldera ere, Gulibarko aldaera honi egokituriko Txulapaingo Beorburun bederen, sumatu egin dugu haren arrastoa.

Ia aditzen ez diren hizkiak, honen aurreneko saioan egin bezala, parentesi artean idatzi ditugu. Zalantzarria iruditu zaigun hitzaren ondoan, parentesi arteko galdera-ikurra (?) idatzi dugu eta harridura sorrarazi digunaren alboan, harridura-ikurra (!). Halaber, pasarte ilun batzuk parentesien arteko eten-puntuak idatziz [...] ekidin ditugu.

Parentesi karratuak [] erabili ditugu inoiz, hitzen edo esaldi motzen bat testuen barruan tartekatutako dugunean, horietan jasotzen dena argitzeko asmoz.

1 Ik. Pagola, Alkiza, Beola, Iribar & Iribar (1996, azala).

Beste kontu bat da galdera-ikurrena. Irakurlea ohartuko denez, zeinu hori ez dugu soilik galderetan erabili, baizik eta berriemaileek zenbait esaldiri galdera-itxurako in-tonazioa eman dioten hainbat alditan ere bai.

Tildeak, gure lehenagoko saio batean bestelako asmoa erakutsi arren, Larunbe eta Ziako testu gutxi batzuetan markatu ditugu. Hortaz, duela ez aspaldiko gure ohiturari jarraikiz, bi eratako azentuak erabili ditugu: indar edo intentsitate handikoa (´), bata; eta, hori baino txikiagokoa (`), bestea.

3. ALDAERA HONEN EZAUGARRI BATZUK

Oraingo aldi honetan Gulibar eta Txulapaingo mintzairak barne hartzen dituen Gulibarko aldaeraren ezaugarri batzuk aipatuko ditugu, beste batzuk, agian behar besteko garrantzia eman ez diegulako edota oharkabean pasatu zaizkigulako, bazter utziko baditugu ere.

$E + a = ia$ dugu, maiz, mintzaira honetan eta $o + a = ua$, baina zenbait alditan, Usin bereziki, e eta o horiek itxi gabe edota erdi itxita geratzen dira.

$I + a = ie$ dugu eta $u + a = ue$. Baina, hau ez da gertatzen bokalok elkarrekin daude-nean bakarrik; elkarren jarraian doazen bi silabaren parte izanez gero ere, bigarrenean den a bokala itxi egiten da e bihurtuz: *in de, eldu de, lotute...* adibidez. Salbuespenen bat bada, halere: *aundia, gauza* eta *luzago*, gutxienez.

L / ll -ren arteko gorabehera dagokienez, berriz, i baten ondotiko l -a bustita ikusten dugu ohiki: *aprille, estrabille, ezkille, ibilli, illeba, Madrillen, makille, ortzilleria, ur-bille...* baina a bokala e bihurtu gabeko adibideak ere baditugu: *billa, Billaba, ezkill, milla, illabete, urbillago...* (Bitxikeria bat: ‘pantorrilla’ erdal hitza *pantorrila* eman zigtuten Usin).

N eta \tilde{n} -ren arteko gagozkiela ere, antzera: *arakiñe, berdiñe, biño, espartziñek, ga(i)ñera, iñor* (Ondarra, 1982 *nior*), *jakiñen, larra(i)ñe, miñe, noa(i)ño, Nuiñe, o(i)ñes, Osiñaga, Iru(i)ñe, urriñe, za(i)ñe* eta *zurgiñe*. Baina, honetan ere badira bestelakoak: *altzine, gine* (*giñen* ere bai), *geinetan, yakinen...*

T / tt -ren artekoa ere i baten ondotik gauzatzen da ohiki: *aittu, bittertio, bizittu, eraitten, ermitte, garbittu* (*garbitu* ere bai), *geldittu, itten, itturri, nonbeitt, oittu, partittu...* bustigabeko adibide batzuk aditu baditugu ere: *arkitu, bakitu, molitu* eta *jitu*, besteak beste.

Bustidura hau txikigarrietan ere agertzen da: *aitte, gutti, ttar, ttiki...* eta baita, aldaeraren mendebaldean, aditz laguntzaileetan ere, baina ez ekialdean. Honela, Larunben, Zian eta Beorburun, *ttut, ttute, nittuen, zittuten* eta gisako erak erabiliak izan diren bitartean, Usin *tut, tute, nituen* eta *zituden* modukoak dakusku.

Tz dugu, batzuetan, zenbait hitzen hasieran, mintzaira hauek erabiliak izan diren eremuan: *tzerri* (eta are, Beorburun, *tzerri...-kume* ere², *tz* horrek kutsu handigarria izan arren), *tzarrena*, *tzekor*, *tzimeldu*, *tzimildu*, *tzitzirio*, *tzokle*, *tzutitzen*...

Tz dugu orobat, ustezko arrazoirik gabe, hitz batzuen barnean, bokalen arteko *z* baten lekuan: *aitzeatu*, *atzienda*, *bakitzu*, *betzela*, *desgratzi*, *gautze*, *itzen*... adibidez. Hori ezaguna da beste zenbait aldaeratan ere. Otsakarko andere batek, ordea, txistukari afrikatua ohikoa den hainbat hitzetan, *z* soila eman zuen: *azendu*, *bakizera*, *errezeko*, *pazen* ('paratzen'), *unzie*, *Zorziko*...

Batzuetan, haatik, *tx* dugu *tz*-ren lekuan Usiko laginetan, adizki batzuekin bereziki: *zamatxan* / *zematxan*, *in txiren*, *eman txue*... eta, inoiz, baita *tt* ere, zalantzatan egon garelarik *emeretzi*, *enitzen*, *kentzen*... gisako hitzak hona ekartzean, *emeretti*, *enitten*, *kentten*... idatzi egin beharko ote genituen.

Zenbait lekutako *-txo* txikigarria *-tto* dugu hemen, inguruko hainbat lekutan bezala: *altaretto*, *bisitetto*, *burnitto*, *ingurutto*, *tragotto*... adibidez. Beorburun, haatik, *aunditxo* jaso dugu eta Usin inguru hauetan hain ohikoak ez direnak ere: *kontexko* eta *alabantta*.

Z, berriz, *x* bihurtuta dakusagu hainbat txikigarritan: *aixkora*, *arexabala*, *gaixto*, *ixterra*, *moxkortu*, *murruxke*, *pixke*, *xar*, *xartegie* eta *xuria*, adibidez.

S > *x* txandaketa ere bai badugu inoiz, txikigarri gisa batzuetan: *abixatu*, *aixkide*, *gixe*, *laxterka*, *maxkurioa*, *nexka*, *prixeka*, *xamar*, *xardekoa*, *xator* eta *xuxpil*, besteak beste.

X eta *tx* indartzaileak ageri dira batzuetan: *alaxe*, *olaxe*, *orixe*, *ortxe*, *antxe*, *oainxe*... besteak beste.

Z instrumentala *s* bihurtuta dakusagu gehienetan aldaera honen esparruan. Hona Gulibarko adibide batzuk: *aldis*, *beis* ('berriz'), *erdeas*, *euskeas*, *eunesko*, *zuresko*, *ateaeskeostik*... Hona Txulapain aldekoak: *aldis*, *atraskeros*, *beis*, *gaues*, *loies*, *burus*, *iñexkeros*, *luzes*, *penas*, *uskeras*... (Nuingo testuan ere, *burues*, *gucies* eta *medios* gisakoak ditugu). Ibar honetan, haatik, *beiz*, *egunez*, *oñez*, *orduz*, *orduzkeroztik*, *uskeraz*... aditu dugu orobat.

St versus rtz delakoa agerikoa da *beste* / *bertze* hitzean, Gulibarko ibarra, Arakil bezala, bi aldaera hauetako lehenengoaren esparrukoa bada ere. Txulapain, ordea, ukipen-puntuakoa iruditzen zaigu, dualtasun horrez gainera, *berste*, *bestze* eta *bestxe* modukoak ere erabiliak izan baitira hor. *Bost* / *bortz* eta *esan* / *erran* gisako erak korritu

2 Iraizozko Aita Polikarpok (1979, 312. or.), Joaquín Lizarraga idazle eguasibartarraren lanak aztertzean honela zioen: «TZAKUR – perro grande, perrazo. (Cfr los tres grados *tzakur zakur txakur*)». Eta, geroxeago, honela: «TZERRI – cerdo, puerco (Cfr *zerri* y *txerri*)».

dira, bidenabar esanda, ibar honetan, eta *esan* Ezkabarterekin muga egiten duen Untzu herrixkan ohikoa bide zen.

Era horretako txandaketak dakuskigu, halaber, honako adibideetan: *osti koitti* ('hortik goiti'), Zian, eta *Ortizkoak* ('Ostizkoak'), Beorburun.

J eta y fonemen arteko lehia ere aipatzekoa da. Gulibarko Larunben *jarri, jan / yan, jeitxi, jende, jito, juan* eta *juntetu* ditugu, eta, Zian, *jakin, jan / yan, jarri, jaso, joan / juan / jun, jende, jituak* eta *juntatu*. Txulapaingo egoera bestelakoa da, hemen ohikoa-goak baitira y doinuaz hasten direnak: *yai, yaio, yan, yakin, yardoki, yarri, yausti, yeki, yende, yoan, yorra, yolas...* nahiz *jan, jantzi, jarri, jeiki, joan, josi* eta beste j-dunen bat aditu dugun. Y-ren aldeko joera handiagoa da agian ibarraren ekialdean, Elbarrena deritzan eremuan, mendebaldeko Ergoienan baino, baina azken horretako Otsakarren ere *yan, yarri, yoan* bildurik gaude.

Y epentetikoa, berriz, inguru hauetan bitxi samarra izan arren, inoiz aditu dugu: *zelaye* Larunben; *amorraye, laye* eta *zelaye* Beorburun; *arraye, beye* eta *suye* Usin. Halaber, azken bi herri horietako gure oharretan, *maye* dakusagu, eta Larunben, Beorburun eta Usin, hiruretan, *anaye*.

U eta i bokalardi tinkatuak nekez dakuskigu mintzaira hauetan: *gaube* bildurik gaude Beorburun, baina *gaueko / gaues* ere bai. Usin *gaube* bera dugu, eta baita *sube* (*sue-z* gainera), hala nola *sakristaba* (*sakristaue-z* ere gainera), baina salbuespen gutxi batzuk dira. Beorburuko oharretan, *ligua* eta *oligua / oliua* dugu.

G > b txandaketa ere gutxitan, oso gutxitan ageri da: Larunben eta Zian *obie* aditu dugu, baina Larunbe berean bada *ogie* ere. Erdal 'olmo'rako, *zuberra* eman ziguten Larunben eta Beorburun; 'serpiente'rako, Larunben, Beorburun eta Usin, *subia*; eta 'lagartija'rako, Beorburun, *subandille*, baina baita *sugandille* ere.

-tu bukaeradun partizipioa gehi geroaldiko atzizkia -tuko dugu Gulibarren: *faltatuko, kobratuko, pastuko, zautuko...* eta mendebaleko Txulapainen: *gertatuko, mintzetuko, patuko, sendatuko*; baina, ekialdeagoko Usin, -tuko eta -tiko, biak kausitu ditugu: *ezkonduko, sendatuko* eta *zautuko*, alde batetik; eta, *kanbiatiko, pastiko* eta *sekatiko*, bestetik.

-tu bukaera horrixe 'behar' eransteak -tiar izan ohi du emaitza eta -i bukaerari erans-teak -iar. Honela, Gulibarren *sartiar, matxakatiar* eta *karriar* moduko adibideak ditugu, eta Txulapaingo ekaietan *berotiar, eskatiar, ibiliar, kendiar, oztiar, pastiar, prestatiar* eta *ukitiar*, besteak beste.

Bat zenbatzailea mugaturik dagoen adjektiboaren aurrera igarota ikustea ez da ohikoa Gulibarko aldaera honetan, baina ezta ezinezkoa ere: Zian, adibidez, molde biotako *biorra on bat* eta *auto zar bat* lokuzio-parearekin batera, *bankete bat eerra* dugu.

Intentsitatea adierazteko, hitz baten errepikapen mugatua ohikoa izaten da: *garbi-garbie* dugu Larunben eta Zian; *min-miñe*, *zelai-zelaie* eta *belz-beltza* Beorburun; eta *juxto-juxtoa* Usin.

Sinkopak ohikoak dira inguru hauetako mintzairetan: *abildade*, *abrats*, *arpatu*, *artsalde*, *atra* (*atea* ere bai), *barna*, *batre*, *beden* / *beren*, *bedratzi*, *bigarna*, *elkarkin*, *geiltzen*, *imoztrak*, *lastu*, *lemixko* / *lenbixko*, *obrena*, *orgatik*, *pastu*, *sanfermintten*...

Aferesiak ere ohikoak dira inguru honetan guztian: *aman* ('eraman'), *baki*, *in*, *karri*, *kusi*, *man* ('eman'), *torri*, *zautu*. Hitz arruntetan ere badugu bakanen bat: *men*, *maku-me* eta *uli*, besteak beste.

Ohiko partizipiorik gabe, aditz oina dakusagu zenbait aditz jokatur: Larunben *tor da*, *itzel duzu* eta *kar giñuzen*; Beorburun, *etor tzen*, *ibil naiz*, *kus nittuen* eta *kar zittuen*; eta Usin, *kus tut*, *tor tzen* eta *itzel uzu*, adibidez.

Sandhiak noiznahi ageri dira; hona horietako batzuk: *k + b > bakotxa pere* / *kotxea potata*; *k + d > zuti tao*, *kasi tenak*; *k + g > dui kabe*; *k + y > otsoa ttan du*; *l + z > al tzutena*; *n + z > esain tziotela*; *r + z > bear tzuena*; *t + b > badaki pai*; *t + d > baitut*; *t + g > bigiñen* / *baigiñuen*³; *t + n > bainaiz*; *t + z > baitzen*; *z + b > ezpaitu*; *z + d > eztakit*; *z + g > ezkara* / *ezkiñuen*; *z + n > enaiz*; *z + z > etzen* / *etzakiten*. Horrek ez du esan nahi era horretan gauzatu gabeko adibiderik ez denik: *duik gabe*, *bear zuten*, *baide*, *baizen*, *ez dakit*, *ez naiz*, *ez giñue*, *ez zen*, *ez tzuen*...

Aditza maiz dugu bere laguntzaileari itsatsita. Honela, 'baduzu', 'ez baduzu', 'badu-telarik' kasuetarako, adibidez, *bauzu*, *expauzu*, *bautelaik* aditzen dugu noiznahi, eta 'behar dut, du, dute' kasuetarako, *biaut*, *biau*, *biaute*.

'Nor-nork' sailean, *nor* singularreko zein pluraleko lehen eta bigarren pertsona denean, 'nor-nori-nork'eko erak erabiltzea eguneroko gauza izan da, Gulibarko aldaeraren esparruan euskaraz mintzatu den azken denboretan, tarteka salbuespenen bat bada ere. Oroitzekoa da Pedro de Yrizar azkoitiarrak, bere *Morfología del verbo alto navarro meridional* izeneko lanean (1992, 57. or.), Makirriaingo *Catecismoa* aztertu ondoren egin zuen iruzkina: «La diferencia fundamental [...] es que, mientras en el Catecismo [de Makirriain] se emplean las correctas flexiones transitivas personales del tipo *gaitu*, en el uso actual son incorrectamente sustituidas por las correctas tripersonales del tipo *digu*, lo que [...] es diferencia importante». Adibide gisa, *zautuko ze(r)ela* dugu Larunben; *ëngañatu zere ten* Zian; *nik eman dizut zuri kotxean* Beorburun; eta, *biluxik atra zire ten neri* Usin. Salbuespen bakanen bat bada, halere.

3 Leku askotako emaitza 'baik-' izaten bada ere, aldaera horri dagozkion herrietan bildu informazioan ez zaigu horrelakorik azaldu.

Iraganaldiko aditz laguntzaileen bukaerako *n* morfema, Pedro de Yrizarren lanetarako Zian, Larunben, Beorburun eta Usin, Emilio Linzoain eugitarrak eta biok gure bilketak egin genituenean ikusi ahal izan genuen bezala, erantsita dakusagu ohiki: *zen*, *ziren*, *nuen*, *zuten*... baina Txulapaingo berriemaileek –Gulibarkoek ia inoiz ez–, solasaldi askean aritu zirenean, *n* gabeko erak eman zituzten maiz. Nuingo testuan ere, behin bederen, *izence* dakusagu.

-*ki* soziatiboa, aldiz, horrela, *n*-rik hartu gabe dakusagu gehien-gehienetan; hona adibide batzuk: Larunben, *aizeaki*, *eoteaki*, *gurutzeaki*; Zian, *aizeaki*, *goldeaki*, *makineki*; Beorburun, *beorraki*, *kanabitaki*, *mandoaki*, *odolaki*; Otsakarren *goldeaki*; Nuinen, *elcarrequi*, *garbierequi*, *guciequi* (Ondarra, 1982); eta Usin, *alabaki*, *agotzaki*, *elkarreki*, *nexkakuaki*... nahiz eta, tarteka, *n*-dunak ere badiren.

Denborazko *-(e)larik* menderagailua ohikoa izan da Gulibarko Larunben: *iltzen delaik* / *gogortzen tzelaik* / *iduitzen tzakiolaik*; eta baita Txulapainen ere: *tzelaik*, *giñelaik*, *delaik* (Beorburu); eta *zelaik* / *zuelaik* / *dutelaik* (Usi), azken herri honetan *nintzenian*, *zenian* eta *zienian* ere aditurik gauden arren. Gulibarko Zian, aldiz, *-(e)nean* agertzen zaigu nagusiki: *beatsa daonean* / *gaztia nitzenean* / *berotzen tzenean*... tarteka bestelakoren bat azaldurik ere. Beorburun, guztiarekin ere, *-(e)larik* horretatik abiatuta, honako bilakaera dugu: *-laik* > *-leik* (*deleik*, *nitzeleik*, *zittueleik*) > *-lik* (*zaikiolik*, *giñelik*, *zuelik*, *zittutelik*), adibidez.

Bait- kausazkoa ohikoa da oso: *baitao*, *baitzaigu*, *baitauke*, *ezpaite*, *baitzen*, *ezpaitzen*, *baitut*, *baitzun*, *ezpaittut*, *ezpaitzuen*... inoiz, ‘zergatik’ en batez lagunduta kausitu badugu ere: *zeegatik*, *lenao*, *arbola asko beitziren emen* (Beorburu). Hona, Nuingo testuan ere, ‘zergatik’ hori bera, esaldiaren amaiera ezberdina izan arren: *cergatic ociosidadea da atarie*, *nondic sarcendiren*...

Eu diptongoa *au* bilakaturik aurkitu dugu, hitz batzuetan: *aundo* ‘egundo’ Zian; *daus* Ziatik Untzuraino; *berraun* Beorburun (*berreun* ere bai), Otsakarren eta Usin; eta *auskal* Beltzuntzen.

Bilakaera hau aditzek ere, orainaldian, beren laguntzaileekin lotu eta laburbilketak gauzatzen dituztenean, ageri da: Zian, *atrataute*, *ittaute*, *mataute*; Beorburun, *esataut* / *errataut*, *ittaute*, *errataizut*; eta Usin, *eguntzaut*, *aztatau*, *errataute* / *esataute*... baina *ikusteut* eta *opatzteute* ere bai, Olaibarko aldaerari begira hein batean.

Ei diptongoa, halaber, *ai* bilakatzen da inoiz: *erra(i)ñue* dugu Gulia eta Ziako ‘aitagure’etan, *erain* Larunben, Zian, Usin eta Beorburun, azken bi hauetan *ereki*-rekin eta Zian *eraiki*-rekin batera. Beorburun, gainera, *errataizut* dugu, *aizia* (gazt. ‘la caza’, *eizie*-rekin batera), eta baita *agai* ‘ageri’ ere.

Aditz zaharrek geroaldia gauzatzeko *-(r)en* etorkizuneko atzizkia hartzean, ez dituzte, ohiki, ‘erranen’, ‘izanen’, ‘emanen’, ‘janen’, ‘joanen’ eta, nolabait esateko, literarioak liratekeen emaitzak gauzatzen, *errain*, *izein*, *main*, *yain*, *yoain* eta gisa berekoak

baizik, bokalarteko *n*-a erori ondoren nozitu bide duten diptongazioaren kausaz, inoiz salbuespenen bat agerturik ere.

Bestelako joera erakutsi ohi dute singularrean mugaturiko hitzek genitiboa hartzean, ‘amaren’, ‘arotzarengana’ eta ‘gariarendako’ moduko hitzak, adibidez, *aman*, *arotzangana* eta *gariandako* baititugu, nahiz Larunben *orren(t)zat* eta, Beorburun, *golosinentzat* aditu dugun.

Uste aditzaren mendeko esaldiak, orain *-(e)n* orain *-(e)la* hartzen du: Beorburun, *nik uste [...]* erraten *giñun* eta *uste zuten ankak eta [...]* eldu *zirela* aditu dugu. Usin, *nik uste San Migelen bien májoak kusi nituen eta arrek uste men tzuen bazutena*.

Aldaera honetan guztian, halaber, *-t(z)era* aditz-izena gauzatzen da: *eztizute uzten lo ittera / non utziko duu sekatzera? / apezak maten tzion bazkaltzera* –eta are, behin bederen, partitiboa gehiturik ere: *ez zute lo itterarik uzten*–. Usiko berriemailea molde horretaz baliatzen zen, orobat, gaztelaniaz ari izatean: *déjame, que me haces mal, déjame a vestir*, eta gure lehenagoko saio batera ere antzeko adibidea ekarri genuen, Olaibarko Olaitzen bildua: *había que darles a comer*. Mendebaldera, berriz, Arakil ibarrean, ezaugarri hori desagertzen da gure ekaietan, Egiarretako kantu bateko *kortejatze(r)a* hitzean izan ezik, baina hor kanpo-eragina egon liteke.

Partizipio burutueta *-(r)ik* izan ohi da bukaera (haietan erdal mailegu ugari): *barra-tuik, berotuik, damutuik, enterratuik, iñik, lastuik, pa(ra)tuik, sartuik, sendatuik...* baina *-ta* ere bada tartean, inoiz, asimilazioa dela-eta, *-te* bihurtuta: *artute, botata, inte, pastute, yoanta...* adibidez.

Partizipioa aipatu dugunez, inoiz, agian bera indartu nahiz-edo beharrik gabeko *-tu* batez gehiturik azaltzen zaigu: *bakitu, egondu* eta *izendu*, esaterako.

Inoiz, aditz nagusirik gabeko ‘nor-nori’ dugu, datiboarekin zein datiborik gabe: *ya nola zaikion e* (Zia); *orrei zayo Juana* (Beorburu); eta *Bartolo zaikion, euntzeliai* (Usi). Era honetako adibideak hemendik ekialderantz maiz aurkitu ditugu (Ezkaabarte, Olaiabar, Odieta, Anue, Esteribar eta Erroibar ibarretako zenbait herrixkatan, gehi Auritz herrian), baina mendebaldera ere ageri zaizkigu Imotzen, Arakilgo Ihabar aldean eta, jauzi bat eginez, Etxarri-Aranatzen, Dorraon eta Bakaikun (Artola, 2014, II, 369).

‘Baizik’ kasurako, *baizik* guztiak beti elkarren baliokideak ez direla jakin arren, *bestarik / bertzeik* erak azaltzen zaizkigu inguru hauetan. Gulibarren aurrenekoa bakarrik eta Txulapainen biak (Beorburun, *baizik* ‘aitagure’ baten testuinguruan dugu soilik). Nuingo testuan, haatik, *baizic bie elcarrequi* irakur dezakegu.

Erkaketarako, gutxitan bada ere, ‘zenbatenez’ dakusagu, inoiz *-ago* batez osatua. Zian, adibidez, *zenbatenas bero? eultzireko obe* dugu, eta, Beorburun, *zenbatenas goitiao? pues, pixkuat miarrao*. Era horretako esapideak hegoaldeko goi- nafarreraren esparruan aditu ditugu, halaber, Odieta Latasan, Esteribarko Leranotzen eta Erroibarko Aurizberrin, gutxienez. Eta, esparru horretatik at, hala hurbileko Atetz ibarrean

nola Zaraitzukoan ere. Beorburun, gainera, era honetako moldea dugu: *déna, aúni-tzeki zuriágoa atéatzen da* edota *aunitzeki leku obetuen*, eta, Usin, *aundítzeki interes geiago zuela*.

Ergatiboa maiz ikusten dugu alboraturik herri hauetan, izenorde asko *k-z* gabeturik baitugu han-hor-hemenka, inoiz aurkako kasurik ematen bada ere.

-ion bukaerako erdal mailegutan *-io* dugu ibar hauetan nagusiki: Gulibarko ekaietan, *afizio, direzio, estazio, prozesio* eta *tentazio* gisako hitzak dakuskigu, esaterako, eta Txulapaingoetan, *intentzio, operazio, prezio, relazio* eta *satisfazio*. Otsakarko berriemaileari, haatik, *arrazoña* bildu genion.

‘Ala’ hautakaria ez dugu Gulibarren ez Txulapainen aurkitu, ‘edo’ bakar batez baliatu izan baitira, antza, esparru luze-zabal honetako hiztunak aipatu xederako. Salbuespen bakarra Usiko berriemaileak kantaturiko koplara batean dugu, *auntzek ala erbi*, baina oso litekeena da kantutxoa kanpoko izatea.

Singularreko hirugarren pertsonako ‘hura’ erakuslea *ore* dugu hemen askotan, batzuetan ‘hori’ ote den iruditzen bazaigu ere. Txulapainen, halere, hau garbi xamar da-goela uste dugu: *au, ori, ore*, alegia, tarteka *ure*-ren bat agerturik ere.

Agintera denborako era jakin bat ahoskatzean, *gatxazu* eman ziguten Larunben eta *gaitxazu* Zian, otoiitz baten testuinguruan izan arrren. Inoiz aipatu izan ditugu era horretako ahoskerak, duela denbora gutxi Olaibarko aldaerari buruz jardun genuenean bereziki.

Adlatibo kasuan dauden adberbioak direla eta, Gulibarren *onea, orrea, area* (*arara* ere bai) gisakoak ditugu, eta Txulapainen *onara / onata, orrara, arara / arata* modukoak, baina Beorburun *onera / onea* eta *era* (sic) / *ara* ere aditu ditugu.

Ustez horrekin loturik, bokalarteko *r* samurra galdurik dakusagu hainbat adibidetan: *akaatzea, erdea* eta *oittuik* adituta gaude Larunben; *barratuik, mezaa* eta *trilladoraa* Zian; *batea, lanea* eta *geldiik* Beorburun; eta *atzenduik, itxeako* eta *ospitelea* Usin.

-tatic / -ta(r)ik bukaerak direla eta, Gulibarren aurrenekoa dugu maizenik: *gatzetatik, oketatik, oietatik, ontatik, denetatik* (*oietaik* eta *denetaik* ere badira); baina Txulapainen bigarrena da nagusi: *ontaik, ortaik, artaik, oietaik, aurretaik, alabetaik* eta *guzietaik*, gutxienez. Beorburun, halere, *lauetaik bat*-ekin batera *iruetatik bat* ere badugu.

-(r)ik + an agertzen da batzuetan; *artuikan* dugu Larunben; *duiken, ferikan, oandikan* eta *zintzilikan* Zian; eta *emendikan, ontikan, esperiken* eta *artzautelikan* Beorburun. Usiko ekaietan ez dugu horrelakorik hauteman.

Azpimarratzekoak dira, halaber, sintaxiaren ikuspuntutik egitura bitxiko esaldi batzuk: *ogie ematen tziutena* eta *ure bear tzuena*, biak Zian bilduta, eta *zeatik reina e(r)saten dutena ori*, Beorburun.

Eta, bukatze aldera: zer azpimarratu besterik badela iruditu zaigunean, halakoa oinohar bidez egin dugula esatea dagokigu, ahalegin horretan hainbat datu jakingarri bideertzean geratu zaigula aitorturik ere.

4. SAIO HONETAKO BERRIEMAILEEN ZERRENDAA

Gulia

Angeles Jauntsarats Larraiotz, 1910?
ama: Gulia / aita: Egiarreta (Arakil)

Larunbe (Oraien auzoa)

Gregoria Baraibar Erbiti, 1912
aita: Larunbe-Oraien / ama: Etxaleku (Imotz)

Larunbe

Isabel Erize Egozkuezabal, 1911
aita: Larunbe / ama: Nuin (Txulapain)

Zia

Hipolito Goñi Erro, 1901
ama: Zia / aita: Etxaleku (Imotz)
eta emazte
María Etxeberria Oiartzun, 1904
ama: Zia / aita: Gartzarun (Basaburua)

Aginaga

Manuel Larunbe Aizkorbe, 1922
eta
Juan Larunbe Aizkorbe, 1923
ama: Aginaga / aita: Izurdiaga (Arakil)

Jarraiko testuetan joan den mendeko laurogeiko hamarkadan Gulibarren aurkitu genuen gure hizkuntzaren egoera tamalaren berri jasotzen da, denbora hori bitartean belaunaldiz belaunaldi transmitituriko euskara azken muturreraino iritsi izanaren ispilugarden baten moduan.

Bi egoera aurkitu genuen hor, zeharo desberdinak: euskarari artean atxikitzen ziotenena Zian eta Larunbeko Oraien auzoan, bata; eta, jadanik erdaldundurik geraturiko Gulian, Larunben eta Aginagan, bestea.

Litekeena da azken leku horietako berriemaileek emaniko testuei –edo, hobeki esanda, apurrei– beren txikian ematen diegun garrantzia soberaxkoa izatea, baina, aipatu denboran gure hizkuntzaren galeraren itzela norainokoa izan den kontuan izanik, apurrorok hona ekartzea erabaki dugu, lekukotasunen berri emateko.

5. GULIA

5.1. Angeles Jaunsarats Larraiotz

Ibarrari izena ematen dion herrian sartu ginen 1980an, bertako euskaldunen bat aurkituko genuen itxaropen urriaz eta gure ustea ez zen okerra izan, ez baikenuen euskaraz mintzatzeko gai zen bertako lagunik aurkitu. Andre Angeles honekin izan genuen solasalditxoia diogunaren isla da, urte haietan, jada, egoera zer-nolakoa zen ikusteko.

Hondar-mondarrak; higaduraren erabatekotasuna (1980)

– El padrenuestro, por ejemplo, ¿ya aprendió? ‘Aita gurea’...

Ya zeruetan zaudena, betor guregana zere errañue. ¡Pero ya no puedo decir más, no me acuerdo!... no sé, ni el padrenuestro ni...

– Y ‘santu izan bedi’ ¿sí?

Egunezko egie (sic), bueno, tan con uno... ¡ni te apuntes!

– ‘Emaiguzu egun honetako ogia’?

A!... ogia, bai; beño... an, sí, eso.

– ‘Barkatu gure zorrak’...

Pues, no sé...

– No se acuerda...

No, no puedo ¡y sabía todo!... Pero el cura, me parece, ya sabía, y ahora hacía mucho que ya no hacen; con un pordiosero que venía, ¿que rezaba en vasco? y le estaba escuchando cómo rezaba él.

– ¿Y en la catequesis no?

No.

– El cura no enseñaba ya aquí...

En castellano, sí.

– Y del avemaría ¿aprendió algo?

Abe Maria graziaz betia, ta, Jangoikoa da zurekin, betor...

– ‘Bedeinkatua’...

Bedeikatue sabeleko freittugu Jesús. No sé cómo es.

– Y ¿‘Santa Maria Jaungoikoaren ama’?

No sé, no sé, egunten, ¡ya se me ha olvidaö!

6. LARUNBE

6.1. Gregoria Baraibar Erbiti⁴

Ijitoak (1981)

Si me dice de gitanos, pues igual le digo.

– Bai? jitoak edo ijitoak edo nola?

4 Andre horri bildu genizkion beste testu batzuk ere lehenago argitaratu ziren (EAEL II, 1990; Artola, 2014, III).

Jítoak.

– Etortzen ziren herri honetara?

Bai, etór tzee, ta... nèe amái? ateázi, atèa nai ziotén, bèak nai zuténa, ta nèe amák, béak, buènabenturá, bóta, ësàin tziotéla, ta ètzun náí, ta ník eé... ènion útzi nai, ní jarri nitzén bèen kóntra, ta ebék enfàatu zeén ta amà juan tzén zebáitt ee... límosna matekó? tsùkeldeá.

Ta... ór etór tzelaík? née kontrà besteák! zaútuko ze(r)elá? zaútuko zeetelá? nónai... kústen, kústen bazet[en]. Ta, ní orti nítzen ya zé esáten tzuten; bí juntètzen tzerén? ta, ya zé esáten tzuten.

Ta, piruxák? áma enuéke balittú? enitzèla bíziko, esán tzuten. Ta amák man tziotén límosná ta, juán tzeén, dénak mármara (barrez). Ya no es más.

Txikitan euskara ikasi (1981)

– Zuk, euskara, aita-amekin ikasi zenuen...

Ikísi nuen, bai.

– Eta, gero, eskolara...

Géro eskólara.

– Larunbeko eskolara joan...

Bai.

– Eta, han zer gertatu zen?

Zér gertátu biar tzuén? dénak írri in tzutén, nèe euskeás!

– Irri?

Klaró!

– Eta, egun batez maistrak zer esan zizun? aitagurea erreztzeko?

Aitàgureá erreztzekó bai, ta ník... erdeáz éz nakí(n)? ta, geró, úskeas errèztzekó; úskeas errèzatu nun beñó, dénak írri itten tzèetén? ta ní lótsa artuikán.

– A! gaixoa! eta nola erreztatu zenuen?

Ník? príxeka...

– Bai, baina nola, nola esan zenuen?

Àita gúria zeruetán zaudéna, ta ní(k) éztait géigo oái...

– ‘Santu izan bedi zure izena’... horrelako zerbait?

Kláro! ólakoá, biñó déna óso-osoá.

– Eta, agurmaria?

Ez, orrén e... éz-ez; yo no me acuerdo nada ya.

Eguberrietan ezer ez (1981)

– Eta, Eguberrietan... horrela esaten da ‘en las Navidades’?

Aquí no decimos nada de eso ya ¡todo es en castellano!

– Y ¿no cantaban aquí, por el barrio, alguna canción en euskera?

Nada, yo no he oído aquí cantar en euskera nunca.

– ¿Nunca, e? ¿ninguna canción de Navidad o así?

Nada.

– Eta, misioak, izan dira hemen?

Misiones ha habido pero en castellano también. Aquí, vasco, no éramos más que... más que nosotros, aquí, dos familias; los demás ya no hablaban vasco pa cuando yo nací.

Trinitateko ermita (1984)⁵

– Egiten al da erromeria edo, a la Trinidad de Aginaga edo?

Ezta itten ya.

– Baina, denboraz bai? denbora batean egiten zen?

Bai, lenago itten tzen.

– Noiz, noiz egiten zen erromeria hura?

Asteartean.

– Baina, noiz? maiatzean, abuztuan edo zein egunetan?

Trinitateko... iruarren eunian.

– Eta, zer egiten zen? joaten zen hemendik?

Emendi? apezaki ta... gurutzeaki ta dena, prozesioan juaten tzen.

– Bai? herri guzia?

Erri guzia? balle guzia, Guliko balle guzia.

– Eta, denak biltzen ziren ellegatu baino lehen?

Biltzen tzeen?... Añaa-, Ainagara.

– A! Aginagara; eta gero, handik elkarrekin...

Ta gero? andik elkarreki(n), prozesioan, gurutzeakin ta Ama Berjiñekin ta... dena.

– Eta, bidez, zer egiten zen, errezatu?

Biden... letaniak kantatzen tzien.

– Latinez?

Latinez, ta... geo, area juan? ta, nai zunak gosaldu, nai zunak mezara juan? lemixko ematen tzuten meza at, ta geo... gosaltzea denak; beis, denboa, ordu at o... ze? pastuko zen, an, gosaltzen ta... itzez, itz ekitten ta, ala, ta geo, beës, meza⁶, ta... gero, beis... o elizea despeditzea? ta geo itxea.

Ori asteartean. Iendean? juaten tzeen... nai zunak, orduen etzen prozesioik eta ez daus, bakotxa⁷ nai zuena juaten tzen ta, ordun bai, orduen bazeen txutxeria-saltzaleak eta denetatik; nai zuna dantza, nai zunak jan, bakotxak libre zun, ta nai zunak, nai zun or-... orduen? juaten tzen? ta... bueltatzen tzen, biño asteartian ez, asteartian prozesioan juaten tzen? ta prozesioan... etortzen, bai. Orduen, bakotxa... biltzen tzen prozesiora ta, alaxe, bueltatzen tzen.

– Eta, apezak predikatzen zuen?

Ez! predikatzen... gutxi, zerbait, itzen batzuk itten zittun biño, lenbelen despatxatzea, elizetik ya an otza itten baitzun; ez, gu... otza zen ta, lenbelen despatxatzea. An, sue aundie itten tzuten, itxa bada ta... an, maiek ee baita, suen... ingurura jentea biltzen tzen, gosaldu eta. Ta ya, ezta kontatzekoik ortatik.

– Euskaraz ez zen predikatzen?

⁵ Testu honen zatirik handiena ere lehenago argitaratu zen (Artola, 2014, III).

⁶ ‘Mezara’, alegia; *-(e)ra* adlatiboa bokal baten ondoan joatearen ondorioz, nahiz batzuetan, bokalarteko *r*-a erortzean, *a* luze antzeko bat aditzen den: *itxetaa*, *errietaa*, *ortaa*... Hitzaren bukaera beste bokal bat izanik ere gerta daiteke hori, ‘labera’ > *labea*, adibidez. Inguru hauetan eta Arakil aldean joera hori ohikoa da, beste leku askotan ezaguna izan arren.

⁷ *Gaakotxa* edo *garakotxa* aditu uste dugu hor.

- Ez-ez-ez-ez-ez... ezpaitzen euskaldunik! nee denboan guk eztuu euskaldunik, kasik eta.
- Eta, zu txiki edo gazte zinelarik, hemengo apezaz nongoa zen?
- Eztait nungua zen; izena don Frantzisko zuen.
- Baina, ez zen herri honetakoa eta euskaraz ez zekien...
- Eztait bazakin biño nik, nik ez nuen-un zautu ure e kasi; ni aitzia, besteai aitzia.
- Eta, saltzaileek zer saltzen zuten? txutxeriak bakarrik edo azteentzako joaleak eta halako gauzak?
- Ez-ez-ez-ez-ez... yoaleak bai, bat eo beste izein tzen biño gutxi, biño... ee! txutxeriak, aurrentzako txutxeriak, dultzak eta ala, kaameloak ta...
- Eta, zer musika sonatzen zen? txistu edo... akordeonista edo?
- Ba!... enaiz oitzen ni ya ze txistu, ze... biño, jendea juaten tzen, inguruko jendiak juaten tzen, akordeonon bat.
- Bai, erromeria pixka bat eta egiten zen...
- Klaro, pixkat animetzeko.
- Eta, Trinitateko ermitara nola joaten zineten?
- Trinidad, Trinidadera? andando.
- Bai? oinez?
- Oñes.
- Noiz da eguna?
- Eztu fjoa, ezta... fjoa; segun, maiatz o... kuaremai nola esaten tzaio?
- Garizuma?
- Enun aittu oañik!
- Ez da horrela esaten?
- Eztait, enabile!... orrekin ibiltzen da, batzutan lenao? beste atzutan... atzeenago.

San Urbanora ohitura gutxitxo (1981)

- Eta, inguru honetan bazen ohiturarik San Urbanora joateko?
- Bai, area juaten tzen biño... ez orrea [Trinitatera] bezala.
- Urrunago baitago...
- Urrutiago a, askos urrutio dago ore ta, area juaten tzen bakotzak... al tzen bezala, ezpaitzen juaten... ez prozesioak in t'ez daus.
- Orduan, hemendik, gehien-gehienak Trinitatera...
- Bai, emendi pai, emendik geienak Trinitatera; area're... zenbaitte aldiz juaten tze jendia biño, ez asko emendik e.

Irurtzungo feriaz (1981)

- Eta, Irurtzunen, denboraz, izan da feria majoa bat, ezta?
- Oai biño majoa!... dena or, denetatik juntetzen tzen or: txerriek eta... txekorrek eta... ardiek ta, denetati!... Ta tze? bazuten iru o lau plaza, bazeen, ta, antxe juntetzen tzen, batzutan txerri, beste atzutan txekorra, beste atzutan... zea, jateko gauz eta... et'o, espartziñek ta zapetak eta denetaik biño, pixke-pixke, akabatu, akaatzea tor da ori're.
- Orain ez da egiten?
- Orai ezta... ezta! bah! juntetzen da jende... pixkua(t) piño? bat juaten da gauz'at eske, bestea beste at eske? ta ezta... ezta lenao bezala.

– Saltzaileak nondik etortzen ziren?

Saltzale, Iruñetik geienak... Iruñetik geienak, ta erriköak ee... al tzutena eitten tzuten, beño etzen... Oai ezta, oai akaatu da dena; tiendak badee errien ta, zerbaitt... balin bada o... prise balin badiu kartzeko? pues juaten da jendia ta kartzen du biño... ezta, lenao bezala, ez.

– Eta, inguruko herrietakoak ere etortzen ziren?

Bai, asko, lenao jende asko juntetzen tzen or, biño oai... oai ez; oai, bat, badaielat? bestea bueltan eldu da...

Noraino joana (1981)

– Eta, zu noraino joan izan zara?

Noaño? ni ingurutto, emen...

– Iruñeraino baino gehiago bai, urrutirago bai...

Gutxi.

– Noraino joan izan zara?

Aigian... itxetaa, bestena, beste gañeakoik ez; bakotxak lana franko badu bere itxan.

